

# Giza eta arte-kulturarako gaitasuna



## Material didaktikoa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**EUSKO JAURLARITZA**




**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

# ITSASARGIA



## TEKNOLOGIA

DBH 1. 3.ebaluazioa

---

**LAN-ESKEMA**


---

**Arloa: TEKNOLOGIA****Gaia: ITSASARGIA****Maila: DBH 1****5 Jarduera: 19 saio**

**Non aurkitzen da Sekuentzia Didaktikoa:** <http://bit.ly/15YYK1O> edo <https://sites.google.com/site/itsasargiabn/>

**Kontestualizazioa::**

Proiektu hau DBH lehen mailan 3. ebaluazioan aurkezteko da, edo DBH bigarren mailan 1. ebaluazioan egiteko. Ikastetxe bakoitzak Teknologia gaiari jarritako orduak aginduko dute.

Ebaluaziori hasiera ematen zaio Teknologian erabiliko den metodologiaren faseak gogoratuz, hau da UD0. Unitate honetan gogoratzen da proposatuko zaien proiektua burutzeko eman behar izango dituzten urratsak. Lortu nahi dena zera da: ikasleak era sistematiko eta ordenatuan lan egiteko ohiturak finkatzen joatea.

Beste gaitasunen artean, ***giza- eta arte- kulturarako gaitasuna*** garatu nahi da bereziki. Ikasleek itsasargiak gaitzat hartuta, Historian zehar eman zaizkien konponbideak aztertuko dituzte eta une soziokultural bakoitzean egin duten ekarpena eta bete duten funtzioa baloratuko dute. Horrekin batera irudimena erabili eta sormena garatuko dute taldeka itsasargiak diseinatuko eta gauzatuko baitituzte.

Halaber, gogorarazi nahi da metodologia hau era egokian aurrera eramateko, baldintza minimo batzuk izan behar direla: ikasle kopurua, tailerraren baldintzak, eskura izango dituzten baliabideak eta abar.

**Landuko diren konpetentziak:****Jarduerak**

- . Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna
- . Ikasten ikasteko gaitasuna
- . Matematikarako gaitasuna
- . Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna
- . Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna
- . Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
- . Giza- eta arte - kulturarako gaitasuna
- . Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

- Sekuentzia osoan
- B1, C1, C2, C3, C4, C5, C6, C7
- B1, B2, C5, C6, C7, D1
- A1, A2, Lan koadernoak, Txostena
- Sekuentzia osoan
- Talde laneko jardueretan
- A1, B1, B2, D1, D2
- Prozesu osoan

**Helburu didaktikoak:**

- 1.- Itsasargiak gizartean eta historiaren fase bakoitzean izan duen eraginaz jabetzea, eta balioestea.
- 2.- Proiektuaren diseinuan eta akaberan irudimena erabiltzea eta sormena erakustea.

- 3.- Informazio teknikoa, prozedurak eta sinbologia era egokian interpretatzea eta informazio bera aurkitzeko bideak erabiltzen saiatzea.
- 4.- Proiektuari irtenbide egokiak ematen saiatzea bakarka eta lan-taldean ere.
- 5.- Taldean erabakitako irtenbidearen planifikazioa egitea, erabiliko diren baliabideak aurreikusita.
- 6.- Erabiliko dituzten elementu elektrikoaren ezaugarriak ulertu eta era egokian erabiltzea
- 7.- Abiadura aldaketa lortzeko poleen eta engranajeen eginkizuna ulertzea
- 8.- Proiektua eraikitzea material egokiak aukeratuz, ondo aprobetxatuz, birziklatua erabiltzen saiatuz eta makinak eta erremintak zuzen erabiliz.
- 9.- Egindako lanaren aurkezpena egitea hizkuntza egokia eta IKT baliabideak erabiliz
- 10.- Prozesu osoan ohitura egokiak sustatzea, lan-taldean tratu egokia izanez, zereginak banatuz, lankidetzan arituz, lan-lekua txukun mantenduz eta abar.

### **Edukiak:**

1. Informazioa bilatzeko eta txostena idazteko egiteko erreminta informatikoen erabilera
2. Dokumentazio teknikoaren interpretazioa eta praktika: prozesu-orria, planoak eta katalogoak
- 3 Proiektu teknikoa faseen arabera egitea
4. Irudikapena. Perspektiba, zirriborroa, isometrikoa
5. Elementu elektrikoak eta hauen erabilera zirkuituetan. Neurgailuen erabilera
6. Mekanika eta elektrizitaterako simulatzaileak
7. Makina sinpleak. Abiadura aldatzeko mekanismoak
8. Lan-taldekota partaide bakoitzaren konpromisoa
9. Oinarritzko arauak betetzearen aldeko jarrera: talde-lanean, erreminten erabileran, sinbologian
10. Sareko jarrerak: zuhertasuna, informazioaren balorazio kritikoa

### **Jarduerak:**

**Bost** fasetan banatu dira jarduerak

#### 1.- HASIERA

- A1Jarduera.:Itsasargiaren historia eta ondorioa
- A2Jarduera: Proiektu-metodoaren faseak

#### 2.- PROPOSAMENA

- B1Jarduera: Proposamena aztertu
- B2Jarduera: Hasierako diseinua

#### 3.- INFORMAZIOA

- C1 Jarduera: Ikasi beharrekoak
- C2 Jarduera: Bistak praktikatzekoa
- C3 Jarduera: Bistak sakontzekoa
- C4 Jarduera: Berrito bistak praktikatzen
- C5 Jarduera: Mekanismoak aztertzea
- C6 Jarduera: Elektrizitatearen lantzea
- C7Jarduera: Polimetroarekin praktikatzen

#### 4.- ERAIKI

- D1 Jarduera: Planifikazio-orria
- D2 Jarduera: Proiektua eraiki

#### 5.- EBALUAZIOA

- Lan koadernoak
- Txostena

## Aurkezpena

**Ebaluazio adierazleak:****Tresnak**

1.	Gizartean itsasargiak izan duen eraginaz jabetzen da	Behaketa
2.	Identifikatzen ditu proiektu metodoaren atalak eta saiatu da jarraitzen.	Behaketa
3.	Informazioa aurkitzeko nahiko autonomia izan da.	Behaketa
4.	Informazioa bilatu eta talde lanean gogoeta egin du.	Froga idatzia
5.	Elementu elektrikoak ezagutu eta funtzionamendua ulertzen du	Fitxak jaso eta Behaketa
6.	Zirkuituak era egokian muntatu ditu simulatzailean eta protoboardean	Froga idatzia eta Behaketa
7.	Polimetroa era egokian maneiatzen du intentsitatea eta tentsioa neurtzeko	Froga idatzia
8.	Polea eta engranajeen funtzionamendua esplikatzen du	Behaketa eta froga
9.	Sistema mekanikoetan mugimenduaren transmisioak duen erlazioaren algoritmoa ulertzen du	
10.	Erabili dituen erreminten izenak eta erabilerak ezagutzen ditu.	Behaketa
11.	Erremintak era egokian erabili ditu.	Taldearen auto-ebaluazioa eta behaketa
12.	Talde-lanean partaidetza egokia eta aktiboa izan du.	Taldearen auto-ebaluazioa
13.	Taldean tokatu zaizkien eginkizunak ondo bete ditu.	Behaketa eta txostena
14.	Ordenagailuko simulatzaile programak erraz erabili ditu	Behaketa
15.	Eraikitako proiektua materiala ondo aprobetxatuz eta birziklatua ere erabiliz egin dute.	
16.	Eraikitako proiektuan irudimena eta sormena nabarmentzen dira	Behaketa
17.	Txostena txukun, garaiz eta dena ordenagailuz entregatu du	Txostena
18.	Proiektuaren aurkezpena gidoia jarraituz egin du	Txostena eta taldearen ebaluazioa
19.	Gelan egindako saioak epean idatzita daude eta txukun <i>Lan koadernoan</i>	Behaketa

## Jardueretan erabilitako Tresnak

- . Behaketa egiteko hainbat txantilo egin behar dira, kasu bakoitzean zer konprobatu nahi den arabera. Ereduak non-nahi aurki daitezke. Site-an batzuk jarrita daude
- . Lan koaderno eta txostena
- . Google tresna.
- . Proposatzen zaizkien ariketak

Aurkitzen den sitearen lehenengo orrialdearen irudia:

<https://sites.google.com/site/itsasargiabn/>

**B**  
Berritzegune  
Nagusia

**ITSASARGIA**

Buscar en este sitio

▼ **Hasiera** →

- Grekoak-  
Erromatarrak
- Proiektu-metodoa
- ▼ **Zer proiektu**
- Hasierako diseinua
- ▼ **Informazio bila**
- Marraketa
- Mekanismoak
- Elektrizitatea
- Eraiki**
- ▼ **Ebaluazioa**
- Lan koadernoak
- Txostena

[Didaktika](#)

## Hasiera

Ilunabarrean itsas aldera joateko aukerarik baldin badugu, ikusi izango ditugu argi indartsu batzuk kostaldean piztu eta itzaltzen eta agian itsasontzi batzuen argiak ere itsas barna.



Euskal Herriko kostaldeko herrietan argazkian dugunaren antzeko faroak edo itsasargiak dauzkagu.

Itsasargi batzuk ospetsuak dira. Sites honen logotipoan Donostiakoa ikus daiteke, eta orri honetako argazkikoa zeuek asmatzeko aukera ematen dizuet.

Nola baina? Zuek planifikatu eta diseinatuko duzuen itsasargiarekin. Sekuentzia didaktiko honen helburua horixe baita: urratsez urrats zuen gustuko itsasargia diseinatzen eta eraikitzen laguntzea.

Has gaitezen bada!